

**18. LEY 27/2003, DE 31 DE JULIO,  
REGULADORA DE LA ORDEN DE  
PROTECCIÓN DE LAS VÍCTIMAS DE  
LA VIOLENCIA DOMÉSTICA**

(BOE nº 183, de 1 de agosto de 2003)

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS.**

**I.**

La violencia ejercida en el entorno familiar y, en particular, la violencia de género constituye un grave problema de nuestra sociedad que exige una respuesta global y coordinada por parte de todos los poderes públicos. La situación que originan estas formas de violencia trasciende el ámbito meramente doméstico para convertirse en una lacra que afecta e involucra a toda la ciudadanía. Resulta imprescindible por ello arbitrar nuevos y más eficaces instrumentos jurídicos, bien articulados técnicamente, que atajen desde el inicio cualquier conducta que en el futuro pueda degenerar en hechos aún más graves. Es necesaria, en suma, una acción integral y coordinada que aúne tanto las medidas cautelares penales sobre el agresor, esto es, aquellas orientadas a impedir la realización de nuevos actos violentos, como las medidas protectoras de índole civil y social que eviten el desamparo de las víctimas de la violencia doméstica y den respuesta a su situación de especial vulnerabilidad.

Con este propósito, el pasado 22 de octubre de 2002 el Pleno del Congreso de los Diputados acordó crear en el seno de la Comisión de Política Social y Empleo una subcomisión con el fin de «... formular medidas legislativas que den una respuesta integral frente a la violencia de género....» Entre las conclusiones más relevantes de esta subcomisión, destaca precisamente la

**18. UZTAILAREN 31KO 27/2003  
LEGEA, ETXeko INDARKERIAREN  
BIKTIMAK BABESTEKO AGINDUA  
ARAUTU DUENA**

(2003ko abuztuaren 1eko EAO, 183. zk.)

**ZIOEN AZALPENA**

**I.**

Familia-giroan gauzatutako indarkeria, eta, bereziki, genero-indarkeria gure gizarteko arazo larria da, eta horrek botere publiko guztien erantzun bateratu eta koordinatua behar du. Halako indarkeriek sortutako egoerak gaitu egiten du etxeko esparrua, herritar guztiengan eragina duen gaitz bihurtuz. Horregatik, ezinbestekoa da tresna juridiko berriak eta eragingarriagoak sortzea, euren artean ondo egituratutakoak, etorkizunean egitate astunagoak ekar ditzakeen edozein jokabide hasieratik eragozteko. Azken buruan, beharrezkoa da ekintza oro hartzaile eta koordinatua; ekintza horrek bateratuko ditu, hala erasotzailearen gaineko kautela-neurri penalak, hau da, indarkeriazko ekintza berriak eragozteko xede dutenak, nola izaera zibil eta gizarte-izaerako babes neurriak, xede dutenak etxeko indarkeriaren biktimen babesik eza saihestea eta biktima horien ahulezia bereziari erantzutea.

Asmo horrekin, 2002ko iragan urriaren 22an, Diputatuen Kongresuko Osoko Bilkurak akordatu zuen Gizarte-politikaren eta Enpleguaren Batzordean azpibatzerde bat sortzea, «...genero-indarkeriaren aurrean erantzun oro hartzailea emango duten legegintza-neurriak azaltzeko xedearekin...». Azpibatzerde horren ondoriorik garrantzitsuenen artean, hain zuzen

propuesta, respaldada por el Ministerio de Justicia, de creación y regulación de un nuevo instrumento denominado orden de protección a las víctimas de la violencia doméstica.

Esta iniciativa responde a una inquietud que se ha venido manifestando en diversos documentos e informes de expertos, tanto nacionales (Consejo General del Poder Judicial, Instituto de la Mujer, Fiscalía General del Estado, etc.), como de organismos supranacionales (ONU, Consejo de Europa, instituciones de la UE). Dicha inquietud fue formulada por las Cortes Generales como «... la necesidad de una respuesta integral, la coordinación como prioridad absoluta...» en el reciente informe de la ponencia constituida en el seno de la Comisión Mixta de Derechos de la Mujer, que han hecho suyo los Plenos del Congreso de los Diputados y del Senado. Con esta ley se viene a dar cumplimiento a este mandato unánime de las Cortes Generales.

## II.

La orden de protección a las víctimas de la violencia doméstica unifica los distintos instrumentos de amparo y tutela a las víctimas de estos delitos y faltas. Pretende que a través de un rápido y sencillo procedimiento judicial, sustanciado ante el juzgado de instrucción, pueda obtener la víctima un estatuto integral de protección que concentre de forma coordinada una acción cautelar de naturaleza civil y penal. Esto es, una misma resolución judicial que incorpore conjuntamente tanto las medidas restrictivas de la libertad de movimientos del agresor para impedir su nueva aproximación a la víctima, como las orientadas a proporcionar seguridad, estabilidad y

ere, nabarmentzen da Justizia Ministerioak babestutako proposamena, tresna berri bat sortu eta arautzeari buruzkoa; tresna horren izena izango da etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua.

Ekimen horrek oinarri ditu adituen hainbat agiri eta txostenetan agertutako kezka; aditu horiek dira naziokoak (Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Emakumearen Institutua, Estatuko Fiskaltza Nagusia eta abar) nahiz nazioz gaindiko antolakundeetakoak (NBE, Europako Kontseilua, EBko erakundeak). Kezka hori aditzera eman zuten Gorte Nagusiek, Emakumearen Eskubideen Batzorde Mistoan eraturako ponentziaren txostena hizpide; bada, oraintsu egindako txosten horretan azaldutakoaren arabera, «...beharrezkoa da erantzun oro hartzailea ematea, koordinazioa izanik lehentasunik garrantzitsuena...». Hurrean ere, txosten hori ontzat eman dute Diputatuen Kongresuko nahiz Senatuko osoko bilkurek. Azken finean, lege honen xedea da Gorte Nagusien ahobatezko agindu hori betetzea.

## II.

Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduak bateratzen ditu halako delitu eta faltan biktimak babesteko tresna desberdinak. Bere xedea da, prozedura judizial azkar eta errazaren bidez, instrukzio-epaitegietan gauzatu beharko dena, biktimak babes osoko estatutua lortu ahal izatea, izaera zibila eta penala modu koordinatu batean bilduz kautela-akziora. Bestela esanda, xedea da ebazpen judizial batek aldi berean jasotzea, dela erasotzailearen mugigarritasun-askatasuna murrizteko neurriak, erasotzaile hori biktimarengana berriro hurreratu ez dadin, dela erasotako pertsonari eta horren familiari segurtasuna, egonkortasuna eta babes

protección jurídica a la persona agredida y a su familia, sin necesidad de esperar a la formalización del correspondiente proceso matrimonial civil. La orden judicial de protección supondrá, a su vez, que las distintas Administraciones públicas, estatal, autonómica y local, activen inmediatamente los instrumentos de protección social establecidos en sus respectivos sistemas jurídicos. En ello consiste, precisamente, su elemento más innovador.

Con el fin de hacer efectivas las medidas incorporadas a la orden de protección, se ha diseñado un procedimiento especialmente sencillo, accesible a todas las víctimas de la violencia doméstica, de modo que tanto éstas como sus representantes legales o las personas de su entorno familiar más inmediato puedan solicitarla sin formalismos técnicos o costes añadidos. Asimismo, la nueva orden de protección se ha de poder obtener de forma rápida, ya que no habrá una protección real a la víctima si aquella no es activada con la máxima celeridad. Para ello, continuando en la línea inaugurada por la Ley 38/2002 de 24 de octubre, por la que se regula el procedimiento de enjuiciamiento rápido de determinados delitos y faltas, la presente regulación se decanta por atribuir la competencia para adoptar la orden de protección al Juez de Instrucción en funciones de guardia. La decisión judicial deberá sustanciarse de manera menos perturbadora en el seno del proceso penal en curso, sea cual fuere su naturaleza y características. A estos efectos se posibilita que la audiencia judicial del presunto agresor coincida con la comparecencia prevista en el artículo 504 bis.2 de la Ley de Enjuiciamiento Criminal, cuando ésta fuere procedente por la gravedad de los

juridikoa emateko neurriak. Modu horretara, saihesten da zain egotea, kasuan kasuko ezkontzari buruzko prozesu zibila gauzatu arte. Babes-agindu judizialak eragingo du, orobat, Administrazio publiko desberdinek, estatukoak, autonomia-erkidegokoak nahiz tokikoak, euren sistema juridikoetan gizarte-babesaren inguruan ezarritako tresnak berehala abian jartzea. Hain justu ere, horretan datza legearen osagairik berritzaileena.

Babes-agindura bildutako neurriak eragingarriak egiteko helburuarekin, prozedura oso erraza diseinatu da, etxeko indarkeriaren biktima guztiek erabiltzeko modukoa. Horrenbestez, biktimek nahiz euren lege-ordezkariek edo biktimen hur-hurreko familia-inguruneko pertsonak prozedura hori eskatu ahal izango dute, formalismo teknikorik eta kostu gehigarririk gabe. Era berean, babes-agindu berria azkar lortzeko aukera izan behar da; izan ere, biktimak ez du benetako babesik izango, baldin eta agindu hori ez bada abian jartzen ahalik bizkorrena. Horretarako, urriaren 24ko 38/2002 Legeak, delitu eta falta jakin batzuk azkar epaitzeko prozedura arautu duenak, ekin zion ildoari jarraituz, arauketa honek guardiako eginkizunak dituen instrukzio-epaileari eratziki dio babes-agindua emateko eskumena. Erabaki judiziala bideratu beharko da aribidean dagoen zigor-prozesuan kalterik ahalik gutxiena egiteko moduan, horren izaera eta ezaugarriak edozein izanik ere. Ondore horietarako, ahalbidetzen da ustezko erasotzailearen entzunaldi judizialak bat egitea, dela Prozedura Kriminalaren Legearen 504 bis.2 artikuluan ezarritako agerraldiarekin, entzunaldi hori bidezkoa denean, dauden egite edo inguruabarren larritasuna kontuan

hechos o las circunstancias concurrentes, con audiencia prevista en el artículo 798 si se tratase causas tramitadas con arreglo al procedimiento de enjuiciamiento rápido, o con el acto del juicio de faltas, en su caso.

Finalmente, la nueva ley da carta de naturaleza al Registro Central para la protección de las víctimas de la violencia doméstica, al que tendrán acceso inmediato todas las órdenes de protección dictadas por cualquier juzgado o tribunal y en el que se anotarán, además, los hechos relevantes a efectos de protección a las víctimas de estos delitos y faltas.

#### **Artículo 1º**

Se modifica el artículo 13 de la Ley de Enjuiciamiento Criminal, que queda redactado en los siguientes términos:

«Se consideran como primeras diligencias la de consignar las pruebas del delito que puedan desaparecer, la de recoger y poner en custodia cuanto conduzca a su comprobación y a la identificación del delincuente, la de detener, en su caso, a los presuntos responsables del delito, y la de proteger a los ofendidos o perjudicados por el mismo, a sus familiares o a otras personas, pudiendo acordarse a tal efecto las medidas cautelares a las que se refiere el artículo 544bis o la orden de protección prevista en el artículo 544ter de esta ley».

#### **Artículo 2.**

Se añade un nuevo artículo 544ter en la Ley de Enjuiciamiento Criminal, redactado en los siguientes términos:

«1. El juez de instrucción dictará orden de protección para las víctimas de violencia doméstica en los casos en que, existiendo indicios fundados de la comisión de un delito o falta contra la vida, integridad física o moral, libertad sexual, libertad o seguridad de alguna

hartuta, dela 798. artikuluan ezarritako entzunaldiarekin, epaiketa azkarreko prozeduraren bidez izapidetutako auziak epaitzen badira, dela falta-epaiketako ekitaldiarekin.

Azkenik, lege berriak berebiziko garrantzia eman dio etxeko indarkeriaren biktimak babesteko Erregistro Zentralari. Erregistro horretan berehala sartuko dira edozein epaitegi edo auzitegi emandako babes-agindu guztiak; halaber, bertan jasoko dira, idatzoharren bidez, garrantzitsuak diren egitateak, halako delitu eta falten biktimak babesteko.

#### **1. artikulua.**

Prozedura Kriminalaren Legearen 13. artikulua aldarazi da; artikulua horrek idazkera hau izango du:

«Lehenengo eginbidetzat jotzen dira desager daitezkeen delitu-frogak gordetzea; delitua egiaztatzea eta delitugilea identifikatzea ahalbidetzen duen guztia jaso eta jagotea; hala denean, delituaren ustezko erantzuleak atxilotzea; eta delituaren ondoriozko ofendituak edo kaltetunak, horien familiakoak nahiz beste pertsona batzuk babestea. Ondore horretarako lege honen 544bis artikuluan ezarritako kautela-neurriak edo 544ter artikuluan jasotako babes-agindua erabaki daitezke».

#### **2. artikulua.**

Prozedura Kriminalaren Legeari 544ter artikulua gehitu zaio; artikulua horrek idazkera hau izango du:

«1. Instrukzio-epaileak etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua emango du, Zigor Kodearen 153. artikuluan aipatu pertsonen artean baten baten bizitzaren, osotasun fisiko edo moralaren, sexu-askatasunaren, edo askatasun nahiz segurtasunaren

de las personas mencionadas en el artículo 153 del Código Penal resulte una situación objetiva de riesgo para la víctima que requiera la adopción de alguna de las medidas de protección reguladas en este artículo.

2. La orden de protección será acordada por el juez de oficio o a instancia de la víctima o persona que tenga con ella alguna de las relaciones indicadas en el apartado anterior, o del Ministerio Fiscal.

Sin perjuicio del deber general de denuncia previsto en el artículo 262 de esta Ley, las entidades u organismos asistenciales, públicos o privados, que tuvieran conocimiento de alguno de los hechos mencionados en el apartado anterior deberán ponerlos inmediatamente en conocimiento del juez de guardia o del Ministerio Fiscal con el fin de que se pueda incoar o instar el procedimiento para la adopción de la orden de protección.

3. La orden de protección podrá solicitarse directamente ante la autoridad judicial o el Ministerio Fiscal, o bien ante las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad, las oficinas de atención a la víctima o los servicios sociales o instituciones asistenciales dependientes de las Administraciones públicas. Dicha solicitud habrá de ser remitida de forma inmediata al juez competente. En caso de suscitarse dudas acerca de la competencia territorial del juez, deberá iniciar y resolver el procedimiento para la adopción de la orden de protección el juez ante el que se haya solicitado ésta, sin perjuicio de remitir con posterioridad las actuaciones a aquel que resulte competente.

Los servicios sociales y las instituciones referidas anteriormente facilitarán a las víctimas de la violencia doméstica a las que hubieran de prestar asistencia la solicitud de la orden de protección,

aurkako delitua edo faltaren zantzu oinarridunak badaude, baldin eta biktimarentzat arrisku-egoera objektiboa agertzeagatik artikuluko honetan araututako babes-neurriren bat hartzea beharrezkoa bada.

2. Babes-agindu hori erabakiko du epaileak ofizioz, edo biktimak nahiz biktimarekin aurreko artikuluko harremanak dituzten pertsonetatik edozeinek hala eskatuta, edo Fiskaltzak hala eskatuta.

Lege honen 262. artikuluan salaketa egiteko ezarri egin behar orokorrari kalterik egin gabe, laguntza-erakunde nahiz -antolakunde publiko zein pribatuak, aurreko paragrafoko egitateetatik edozeinen berri badute, berehala komunikatu beharko diote hori guardiako epaileari edo Fiskaltzari, babes-agindua hartzeko prozedura hasi edo eragin dadin.

3. Babes-agindua zuzenean eskatu ahal izango zaio agintari judizialari edo Fiskaltzari, edo Segurtasun Indar nahiz Kidegoei, biktimentzako arreta-bulegoei, edo Administrazio publikoen mendeko gizarte-zerbitzuei nahiz laguntza-erakundeei. Eskabide hori lehenbailehen igorri beharko zaio epaile eskudunari. Epailearen lurralde-eskumenari buruz zalantzak sortzen badira, eskaera jaso duen epaileak hasi eta ebatzi beharko du prozedura, babes-aginduaren erabakia hartzeko; horri kalterik egin gabe, ondoren, jarduna igorriko zaio eskumena duenari.

Gizarte-zerbitzuek eta lehen aipatu erakundeei etxeko indarkeriaren biktimei laguntza eman behar dietenean, erraztasunak ere emango dizkiete babes-aginduaren eskabidea egiteko,

poniendo a su disposición con esta finalidad información, formularios y, en su caso, canales de comunicación telemáticos con la Administración de Justicia y el Ministerio Fiscal.

4. Recibida la solicitud de orden de protección, el juez de guardia, en los supuestos mencionados en el apartado 1 de este artículo, convocará a una audiencia urgente a la víctima o su representante legal, al solicitante y al agresor, asistido, en su caso, de abogado. Asimismo será convocado el Ministerio Fiscal.

Esta audiencia se podrá sustanciar simultáneamente con la prevista en el artículo 504bis 2 cuando su convocatoria fuera procedente, con la audiencia regulada en el artículo 798 en aquellas causas que se tramiten conforme al procedimiento previsto en el título III del libro IV de esta ley o, en su caso, con el acto del juicio de faltas. Cuando excepcionalmente no fuese posible celebrar la audiencia durante el servicio de guardia, el juez ante el que hubiera sido formulada la solicitud la convocará en el plazo más breve posible. En cualquier caso la audiencia habrá de celebrarse en un plazo máximo de 72 horas desde la presentación de la solicitud.

Durante la audiencia, el juez de guardia adoptará las medidas oportunas para evitar la confrontación entre el agresor y la víctima, sus hijos y los restantes miembros de la familia. A estos efectos dispondrá que su declaración en esta audiencia se realice por separado.

Celebrada la audiencia, el juez de guardia resolverá mediante auto lo que proceda sobre la solicitud de la orden de protección, así como sobre el contenido y vigencia de las medidas que incorpore. Sin perjuicio de ello, el juez de instrucción podrá adoptar en

eta, horretarako, haien eskura jarriko dituzte informazioa, formularioak, eta, hala denean, Justizia Administrazioarekin eta Fiskaltzarekin komunikatzeko bide telematikoak.

4. Babes-aginduaren eskabidea jaso ondoren, guardiako epaileak, artikulua honen 1. paragrafoan aipatu kasuetan, presako entzunaldira deituko ditu biktima edo beraren legezko ordezkaria, eskatzailea eta erasotzailea, hala denean, azken hori abokatuaren laguntzarekin. Era berean, Fiskaltzari ere dei egingo zaio.

Entzunaldi hori gauzatu ahal izango da, 504bis. 2 artikuluan ezarritako entzunaldiarekin batera, horretarako deialdia bidezkoa denean; lege honen IV. liburuko III. tituluko prozeduraren izapidetza duten auzietan, 798. artikuluan araututako entzunaldiarekin batera, edo, hala denean, falta-epaiketaren ekitaldiarekin batera. Salbuespenez, entzunaldia ezin bada guardiako zerbitzuan zehar egin, eskabidea jaso duen epaileak ahalik azkarrena egingo du entzunaldirako deialdia. Edozein kasutan ere, entzunaldia, gehienez ere, hirurogeita hamabi orduko epean egin beharko da, eskabidea aurkeztu denetik zenbatuta.

Entzunaldian zehar, guardiako epaileak neurri egokiak hartuko ditu erasotzailearen eta biktimaren artean, haien seme-alaben artean eta familiako gainerako kideen artean liskarra saihesteko. Ondore horietarako, entzunaldi horretan adierazpena bananduta egitea aginduko du.

Behin entzunaldia eginda, guardiako epaileak auto bidez bidezkoa dena ebatziko du, eskatutako babes-aginduari buruz, bai eta erabakitako neurrien eduki eta indarraldiari buruz ere. Horri kalterik egin gabe, instrukzio-epaileak 544bis artikuluan

cualquier momento de la tramitación de la causa las medidas previstas en el artículo 544bis.

5. La orden de protección confiere a la víctima de los hechos mencionados en el apartado 1 un estatuto integral de protección que comprenderá las medidas cautelares de orden civil y penal contempladas en este artículo y aquellas otras medidas de asistencia y protección social establecidas en el ordenamiento jurídico.

La orden de protección podrá hacerse valer ante cualquier autoridad y Administración pública.

6. Las medidas cautelares de carácter penal podrán consistir en cualesquiera de las previstas en la legislación procesal criminal. Sus requisitos, contenido y vigencia serán los establecidos con carácter general en esta Ley. Se adoptarán por el juez de instrucción atendiendo a la necesidad de protección integral e inmediata de la víctima.

7. Las medidas de naturaleza civil deberán ser solicitadas por la víctima o su representante legal, o bien por el Ministerio Fiscal cuando existan hijos menores o incapaces, siempre que no hubieran sido previamente acordadas por un órgano del orden jurisdiccional civil, y sin perjuicio de las medidas previstas en el artículo 158 del Código Civil. Estas medidas podrán consistir en la atribución del uso y disfrute de la vivienda familiar, determinar el régimen de custodia, visitas, comunicación y estancia con los hijos, el régimen de prestación de alimentos, así como cualquier disposición que se considere oportuna a fin de apartar al menor de un peligro o de evitarle perjuicios.

Las medidas de carácter civil contenidas en la orden de protección tendrán una vigencia temporal de

ezarri neurriak hartu ahal izango ditu, auziaren izapidetzako edozein unetan.

5. Babes-aginduak babes osoko estatutua ematen dio 1. paragrafoan adierazitako egitateen biktimari; estatutu horren barne egongo dira artikulua honetan ezarritako kautela-neurriak, ordena zibilekoak nahiz ordena penalekoak, eta antolamendu juridikoan ezarritako beste neurriak ere, laguntza-neurriak nahiz gizarte-babeserakoak.

Babes-agindua edozein agintariren eta Administrazio publikoaren aurrean gauzatu ahal izango da.

6. Izaera penaleko kautela-neurriak izan daitezke, besteak beste, prozesuko legeria kriminalaren arauketan ezarritakoetatik edozein. Neurri horien betekizunak, edukia eta indarraldia lege horretan orokorrean ezarritakoak izango dira. Instrukzio-epaileak neurriok erabakiko ditu, biktimak babes oso eta berehalakoa izateko duen beharrezana aintzat hartuta.

7. Seme-alaba adingabeak edo ezgaituak daudenean, biktimak edo beraren legezko ordezkariak edo Fiskaltzak eskatu beharko ditu izaera zibileko neurriak, baldin eta jurisdikzio-ordena zibileko organoren batek aurretiaz horiek erabaki ez baditu, eta Kode Zibilaren 158. artikuluan ezarri neurriei kalterik egin gabe. Neurri horiek izan daitezke, besteak beste, familiako etxe bizitzaren erabilera eta luperketa eratzitzea; seme-alabak zaintzeko, bisitatzeko, horiekin komunikatzeko eta eurekin egoteko araubidea zehaztea; mantenua emateko araubidea ezartzea; eta adingabea arriskutik aldentzeko edo hark izan ditzakeen kalteak saihesteko egokitzeak jotako xedapenetatik beste edozein.

Babes-aginduak izaera zibileko neurriak jasotzen dituenetan, neurri horiek 30 eguneko indarraldia izango dute. Epe

treinta días. Si dentro de este plazo fuese incoado a instancia de la víctima o de su representante legal un proceso de familia ante la jurisdicción civil las medidas adoptadas permanecerán en vigor durante los treinta días siguientes a la presentación de la demanda. En este término las medidas deberán ser ratificadas, modificadas o dejadas sin efecto por el juez de primera instancia que resulte competente.

8. La orden de protección será notificada a las partes, y comunicada por el juez inmediatamente, mediante testimonio íntegro, a la víctima y a las Administraciones públicas competentes para la adopción de medidas de protección, sean éstas de seguridad o de asistencia social, jurídica, sanitaria, psicológica o de cualquier otra índole. A estos efectos se establecerá reglamentariamente un sistema integrado de coordinación administrativa que garantice la agilidad de estas comunicaciones.

9. La orden de protección implicará el deber de informar permanentemente a la víctima sobre la situación procesal del imputado así como sobre el alcance y vigencia de las medidas cautelares adoptadas. En particular, la víctima será informada en todo momento de la situación penitenciaria del agresor. A estos efectos se dará cuenta de la orden de protección a la Administración penitenciaria.

10. La orden de protección será inscrita en el Registro Central para la Protección de las Víctimas de la Violencia Doméstica.

11. En aquellos casos en que durante la tramitación de un procedimiento penal en curso surja una situación de riesgo para alguna de las personas vinculadas con el imputado por alguna de las relaciones indicadas en el apartado 1

horretan, biktimak edo beraren legezko ordezkariak hala eskatuta, familia-prozesua eragin bada jurisdikzio zibilean, hartutako neurriek indarrean iraungo dute demanda aurkeztu eta hurrengo hogeita hamar egunetan. Epe horretan, lehen auzialdiko epaile eskudunak neurriok berretsi, aldatu edo ondorerik gabe utzi beharko ditu.

8. Babes-agindua alderdiei jakinaraziko zaie, eta epaileak berehala komunikatuko die agindu hori, lekukotza osoarekin batera, biktimari eta babes-neurriak hartzeko eskumena duten Administrazio publikoei, neurriok segurtasunari buruzkoak izan nahiz gizarte-laguntzari, laguntza juridikoari, edo laguntza psikologikoari, nahiz beste edozein motatakoak izan. Ondore horietarako, erregelamendu bidez ezarriko da Administrazioen arteko koordinazio-sistema osoa, sistema horrek komunikazioak azkar egitea berma dezan.

9. Babes-aginduak berarekin dakar biktimari une oro informazioa ematea egotziaren prozesu-egoerari buruz, bai eta hartutako kautela-neurrien norainokoari eta indarraldiari buruz ere. Bereziki, biktimari une oro informazioa emango zaio erasotzailearen espetxealdi-egoerari buruz. Ondore horietarako, babes-aginduaren kontu-arrazoia emango zaizkio Espetxeetako Administrazioari.

10. Babes-agindua Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Erregistro Zentralean inskribatuko da.

11. Zigor-prozeduraren izapideak egin bitartean, artikuluko honen lehenengo paragrafoan aipatu harremanen ondorioz egotziarekin lotutako pertsonetatik edozeinentzat arrisku-egoera sortzen bada, auziaren gaineko ardura duen



de este artículo, el Juez o Tribunal que conozca de la causa podrá acordar la orden de protección de la víctima con arreglo a lo establecido en los apartados anteriores».

## **DISPOSICIONES ADICIONALES**

1ª El Gobierno, a propuesta del Ministerio de Justicia, oído el Consejo General del Poder Judicial y la Agencia de Protección de Datos, dictará las disposiciones reglamentarias oportunas relativas a la organización del Registro Central para la Protección de las Víctimas de la Violencia Doméstica, así como al régimen de inscripción y cancelación de sus asientos y el acceso a la información contenida en el mismo, asegurando en todo caso su confidencialidad.

2ª El seguimiento de la implantación de esta ley se llevará a cabo por una comisión integrada por representantes del Consejo General del Poder Judicial, de la Fiscalía General del Estado, de las profesiones jurídicas y de los Ministerios de Justicia, Interior y Trabajo y Asuntos Sociales, así como por una representación de las comunidades autónomas y de las entidades locales.

Corresponderá a esta comisión la elaboración de protocolos de alcance general para la implantación de la orden de protección regulada en esta ley, así como la adopción de instrumentos adecuados de coordinación que aseguren la efectividad de las medidas de protección y de seguridad adoptadas por los jueces y tribunales y las Administraciones públicas competentes.

## **DISPOSICIÓN FINAL**

Única. La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del Estado.

epaile edo auzitegiak biktima babesteko agindua eman ahal izango du, aurreko paragrafoetan ezarritakoaren arabera».

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

1. Gobernuak, Justizia Ministerioak proposatuta, eta behin Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia eta Datuak Babesteko Agentzia entzunda, Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Erregistro Zentralaren antolaketari buruzko erregelamendu egokiak emango ditu; zehaztuko du, halaber, bertako idazkunen inskripzio eta ezerezteari buruzko araubidea zein izango den, eta bertan jasotako informazioa nola eskuratuko den, betiere horren isil-gordea ziurtatuz.

2. Lege honen sustraitzearen jarraipena batzorde batek egingo du; batzorde hori osatuko dute Botere Judizialari buruzko Kontseilu Nagusiko, Estatuko Fiskaltza Nagusiko, lanbide juridikoetako eta Justizia Ministerioko, Barne Arazoetarako Ministerioko eta Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioko ordezkariak, bai eta autonomia-erkidegoetako eta toki-erakundeetako ordezkariak ere.

Batzorde horri dagokio aplikazio orokorreko protokoloak egitea, lege honetan araututako babes-agindua ezartzeko, bai eta koordinazio-tresna egokiak ematea ere, epaile nahiz auzitegiek eta Administrazio publiko eskudunek hartutako babes- eta segurtasun-neurrien eragingarritasuna ziurtatzeko.

## **AZKEN XEDAPENA**

Bakarra. Lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.